



**MEMORIA
ANUAL
2023
URTEKO
MEMORIA**



SARRERA	04
INTRODUCCIÓN	
DOKUMENTAZIO SAILA	06
DEPARTAMENTO DE DOCUMENTACIÓN	
ARTXIBOA	12
ARCHIVO	
DIGITALIZAZIOA ETA ZAHARBERRITZE LANAK	14
DIGITALIZACIÓN Y RESTAURACIONES	
FILMATEGIRA EKARRITAKO MATERIALAK	18
INGRESO DE MATERIALES EN LA FILMOTECA	
SARTUTAKO MATERIALEN ZERRENDA 2023	20
RELACIÓN DE INGRESO DE MATERIALES 2023	
ARTXIBOA GUZTIRA 2023-12-31	22
TOTAL FONDO DE ARCHIVO A 31-12-2023	
IKUS-ENTZUNEN KONTZULTA	24
CONSULTA DE FONDOS AUDIOVISUALES	
PROGRAMAZIOA	26
PROGRAMACIÓN	
Zinema zikloak / Ciclos de cine	28
Euskara / Euskera	34
Zinemira	36
ARGITALPENAK	37
PUBLICACIONES	
IRAKASKUNTZA-LANAK EQZE-N ETA IKASLEEN PRAKTIKAK	40
DOCENCIA EN LA EQZE Y PRÁCTICAS DE ESTUDIANTES	
FILMATEGIRA EGINDAKO BISITAK	42
VISITAS A LA FILMOTECA	
BESTE JARDUERA BATZUK	44
OTRAS ACTIVIDADES	

Sarrera

Introducción



2023 urte garrantzitsua izan da Euskadiko Filmategiarentzat: programazioaren (zikloak) eta zabalundearen (argitalpenak) eremuak sendotu dira, baina, batez ere, **urrats oso garrantzitsuak egin dira kontserbazioaren, digitalizazioaren eta zaharberitzearen alorretan, Eusko Jaurlaritzak inbertsio oso beharrezkoak egiteko emandako dirulaguntza izendunari esker (375.000 euro).**

Lehiaketa bat lizitatu eta **Spinner S2** eskaner bat erosi zen, **MWA** etxe alemaniarrekoa. Formatu guztietako filmak (8 mm/S8, 9,5 mm, 16 mm/S16 eta 35 mm) digitaliza daitezke makina berri horrekin. Halaber, 13,5K bitarteko kalitatea lortzeko aukera ematen duen sentsore bat du. **Postprodukzio**ko ekipamendurako lizitazio bat ere egin zen: eskaneatutako irudiak gaur egungo pantailen premien arabera tratatzeko hardwarea eta softwarea. Erosketa horri esker, Euskadiko Filmategiak industriako goi-mailako estandarrak beteko ditu funtsak gordetzeari dagokionez: kalitate handieneko digitalizazioak egin daitezke eta zaharberitzearen mundura gerturatzen gaitu.

2023 ha sido un año importante para la Filmoteca Vasca: de consolidación en el ámbito de la programación (ciclos) y difusión (publicaciones), pero, sobre todo, de **pasos muy importantes** en el ámbito de la conservación, digitalización y restauración gracias a la subvención nominativa del Gobierno Vasco de 375.000 euros para realizar inversiones muy necesarias.

Se licitó un concurso y se adquirió el **escáner Spinner S2**, de la firma alemana **MWA**. Esta nueva máquina tiene la capacidad de digitalizar películas de todos los formatos (8mm/S8, 9.5mm, 16mm/S16 y 35mm). Asimismo, cuenta con un sensor que permite conseguir una calidad de hasta 13,5K. Otra licitación contempló **también un equipo de postproducción**: el hardware y software necesarios para tratar las imágenes escaneadas y poder ajustarse a las necesidades de las pantallas actuales. Esta compra posibilita a la Filmoteca Vasca llegar a muy altos estándares de la industria para la preservación de sus fondos: permite digitalizaciones de la máxima calidad y nos acerca al mundo de la restauración.





Testuinguru horretan hain zuzen, dirulaguntza bereko beste partida bati esker, **Tasio** filma (Montxo Armendariz, 1984) zaharberritzea lizitatu zen; 2024an 40 urte bete ditu filmak. Mercury Films etxearekin (eskubideen jabea) eta zuzendari nafarrarekin adostu ondoren, filma L'Immagine Ritrovata laborategietan (Bologna) zaharberritu da, munduko laborategi entzutetsuenetariko batean. Urte-amaieran, azken kolore- eta soinu-doikuntzak egin zituen Armendarizek Italiako hiri horretan. Hemendik aurrera, euskal zinemagintzako film ikoniko hori zinema klasikoko nazioarteko jaialdi garrantzitsuetan eta zinemateka ezagunetan zabaltzeko ahalegina egingo du Euskadiko Filmategiak.

Laburbilduz, funts zinematografikoen kontserbazioan eta bestelako alderdietan izaten ari diren aldaketa ugarien testuinguru honetan, inbertsioak ezinbestekoak dira. Euskadiko Filmategiak ekipamenduak eskuratu ditu 2023an, eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko oinarriak eraiki ditu, eta badaki ekipamendutan inbertsio gehiago egin beharko direla. Filmak zaharberritzea baliagarria izango da euskal zinemaren kontserbazioa eta eskuragarritasuna hobetzeko, bizitza berria emateko nazioarteko erakustoki onetan eta gure zinemagintzan "klasikoa" terminoa sartzeko.

Precisamente en este campo, otra partida dentro de la misma subvención posibilitó la licitación de la restauración de **Tasio** (Montxo Armendáriz, 1984), película que en 2024 cumple 40 años. De acuerdo con Mercury Films (propietaria de los derechos) y con el director navarro, la restauración se ha llevado a cabo en los laboratorios L'Immagine Ritrovata de Bologna, tal vez los más prestigiosos del mundo. A finales de año Armendáriz realizó los últimos ajustes de color y sonido en la ciudad italiana. A partir de ahora, la Filmoteca Vasca tratará de que esta película icónica del cine vasco se proyecte en los festivales internacionales más importantes de cine clásico, así como en cinematecas prestigiosas.

En resumen, en un mundo de acelerados cambios como el de la conservación de fondos cinematográficos, las inversiones son simplemente imprescindibles. En 2023, la Filmoteca Vasca se ha dotado de equipamientos y ha puesto las bases para afrontar retos del futuro sabiendo que serán necesarias nuevas inversiones en equipamientos. Restaurar servirá para tratar de mejorar la conservación y la accesibilidad al cine vasco, darle nueva vida haciéndolo llegar a los mejores escaparates internacionales e introduciendo el término "clásico" en nuestra cinematografía.

Dokumentazio saila

Departamento de
documentación

Ikus-entzunezko funtsen katalogazioa

Catalogación de fondos
audiovisuales

2023an, Euskadiko Filmategiko ikus-entzunezko funtsak katalogatzeko prozesuarekin jarraitu dugu, KOHA tresnaren bidez. Tresna hori liburutegiak kudeatzeko sistema integratu bat da, eta Tabakalerako Medialab liburutegiarekin partekatzen du Filmategiak. Epe luzera, helburua da erakundeko material guztiak katalogo bakar batean biltzea, zeina KOHA bidez kudeatuko bailitzateke.

En el año 2023 se ha continuado con el proceso de catalogación de los fondos audiovisuales de la Filmoteca Vasca a través de la herramienta KOHA, un sistema integrado de gestión de bibliotecas, que la Filmoteca comparte con la biblioteca de creación Medialab de Tabakalera. El objetivo a largo plazo es unificar todos los materiales de la institución en un solo catálogo gestionado a través de KOHA.



1.473

2023AN KATALOGATUTAKO ERREGISTROAK /
REGISTROS CATALOGADOS EN 2023

FILM, EUSKARRI FOTOKIMIKOAK / PELÍCULAS EN SOPORTE FOTOQUÍMICO

211

189

Komertzial/profesionalak
Comerciales/profesionales

22

Familia-gordailuek edo amateurrek emanak
Depósitos familiares/amateurs

FITXATEGI DIGITAL / ARCHIVOS DIGITALES

496

Bai Euskadiko Filmtategian sortutako masterrak, bai ekoizpen-etxeek edo Eusko Jaurlaritzak bidalitako fitxategiak.

Tanto másteres creados en la Filмотека Vasca como archivos recibidos de productoras privadas o del Gobierno Vasco.


BIDEOGRABAZIO / VIDEOGRABACIONES

1.050

U-matic zintak, Blu-Ray diskoak, etab.
Desde cintas U-matic hasta discos Blu-Ray.

2022AN ETA 2023AN KATALOGATUTAKO IKUS-ENTZUNEZKO ERREGISTROEN KONPARAZIOA

COMPARATIVA DE LOS REGISTROS AUDIOVISUALES CATALOGADOS EN 2022 Y 2023



Liburutegia

Biblioteca

Euskadiko Filmategiko funts bibliografikoa 7.000 alek baino gehiagok osatzen dute: Espainiako eta nazioarteko edizioetako dokumentu askotarikoa.

Euskadiko Filmategiko bildumak askotariko lanak ditu: erreferentzia-lanak (hiztegiak, entziklopediak, urtekariak...); zinemagintzako eta ikus-entzunezko zuzendari, interprete eta profesionalei buruzko monografiak; filmei buruzko monografiak; teoriari, kritikari eta estetikari buruzko saiakerak; teknika zinematografikoari buruzko eskuliburuak; Espainiako eta nazioarteko zinema-jaialdien katalogoak; filmen gidoiak (argitaratuak eta argitaratu gabeak); eta zinemari buruzko aldizkari ugari, bai garai batekoak, bai gaur egungoak.

LIBURUAK

Euskadiko Filmategiak 6.000 ale baino gehiago ditu katalogatuak, zeinak onlineko katalogoan eta Bilguneko katalogoan (Euskadiko liburutegien katalogo kolektiboa) kontsultatu baitaitezke, eta, 2022tik, baita Euskarianan ere (euskal kulturari buruzko edukiak eskuratzeko atari digitala). Eusko Jaurlaritzaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien, Euskal Autonomia Erkidegoko udalen, unibertsitateen eta euskal kultura-ondarearen baliabide digitalizatuak kudeatzen dituzten erakunde pribatuen arteko lankidetzan estuan eraikitako proiektua da (Euskadiko Filmategiko funtsen 3.000 erregistro baino gehiago daude).

2023an, 452 monografia berri eta 78 aldizkari katalogatu ziren, eta liburutegiko funtsetan jaso.

El fondo bibliográfico de la Filmoteca Vasca se compone de más de 7.000 ejemplares y está constituido por diferentes tipos de documentos, tanto de ediciones nacionales como de ámbito internacional.

La colección de la Filmoteca Vasca consta de obras de referencia (diccionarios, enciclopedias, anuarios...); monografías sobre directores/as, intérpretes y profesionales del mundo de la cinematografía y del audiovisual; monografías sobre películas; ensayos de teoría, crítica y estética; manuales de técnica cinematográfica; catálogos de festivales de cine nacionales e internacionales, guiones de películas tanto editados como inéditos, así como un gran número de títulos de revistas de cine antiguas y actuales.

LIBROS

La Filmoteca Vasca dispone de más de 6.000 ejemplares catalogados y consultables tanto en el catálogo online como en el de Bilgunea (catálogo colectivo de bibliotecas de Euskadi) y desde 2022 en Euskarian (portal digital de acceso a contenidos referidos a la cultura vasca). Es un proyecto construido en estrecha cooperación entre el Gobierno Vasco, las diputaciones forales de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, los ayuntamientos de la Comunidad Autónoma Vasca, las universidades y las instituciones privadas que gestionan recursos digitalizados del patrimonio cultural (donde hay más de 3.000 registros de los fondos de la Filmoteca Vasca consultables).

A lo largo de 2023 se catalogaron 452 nuevas monografías y 78 nuevos títulos de revistas, que se han añadido a los fondos de la biblioteca.





ALDIZKARIAK

Gaur egun, 145 aldizkari baino gehiago ditugu katalogatuak eta liburutegian kontsultatzeko moduan. Halaber, 1920 eta 1960 bitartean argitaratutako Espainiako eta nazioarteko hogeita hamar aldizkari baino gehiagotako aleak gordezen ditugu.

Aldizkari zaharrak katalogatzeko proiektua:

Zinemari lotutako 94 aldizkari katalogatu dira Ereiten zerbitzu kulturalen enpresaren bidez. Haietako asko inbentariatuta eta batzuk katalogatuta zeuden, baina orain Filmategiaren datubasean sartu dira eta behar bezala gordeta daude erreserba-funtsean.

Izenburu guztiak berrikusi dira, aldizkari bakoitzeko zenbakiak kronologikoki ordenatu dira, haietako bakoitzaren erregistroa sortu da KOHAN eta zenbaki guztiak jaso dira oharretan banaka, Filmategian zeintzuk dauden berehala jakin ahal izateko.

AU PAYS DES BASQUES FUNTSAREN KATALOGAZIOA (Maurice Champreux, 1930)

Jacques Champreuxek, 2012an, bere aitak (Maurice Champreux) 1930ean egin zuen *Au Pays des Basques* filmari lotutako materialen funts osoa utzi zuen Euskadiko Filmategian.

Au pays des Basques Euskal Herrian egindako lehen film soinu-duna da, baita kanpoan filmatutako lehen pelikula frantses soinu-duna ere.

REVISTAS

En la actualidad, disponemos de más de 145 títulos de revistas catalogados y consultables en la biblioteca. Asimismo, custodiamos una treintena de títulos de revistas nacionales e internacionales publicadas entre los años 1920 y 1960.

Proyecto de catalogación de revistas antiguas:

A través de la empresa de servicios culturales Ereiten se han catalogado hasta 94 títulos de revistas relacionadas con el cine. Muchas de ellas estaban inventariadas y algunas catalogadas, pero ahora se han incluido en la base de datos de la Filmoteca y están adecuadamente almacenadas en el fondo de reserva.

Se ha revisado cada uno de los títulos, se han ordenado cronológicamente los números correspondientes a cada revista, se ha creado un registro en KOHA para cada una y en las notas se han incluido todos los números de forma individual para poder saber de forma inmediata los que están disponibles en la Filmoteca.

CATALOGACIÓN DEL FONDO AU PAYS DES BASQUES (Maurice Champreux, 1930)

En el año 2012 Jacques Champreux depositó en la Filmoteca Vasca todo el fondo de materiales relacionados con la película *Au Pays des Basques*, realizada en 1930 por su padre, Maurice Champreux.

Au pays des Basques es considerado el primer film sonoro rodado en el País Vasco, e incluso el pri-



Gainera, euskarazko hitzak entzuten dira, lehenbizikoz. Filmeko irudien bidez Euskal Herri osoa zeharkatzen du Maurice Champreuxek, mendietatik kostaldera; eta, lehen aldiz, irudiak soinua-rekin batera agertzen dira. Gaetan de Bernoville-ren izen bereko eleberrian oinarritzen da.

Hainbat motatako materialek osatzen dute bilduma: liburuak eta aldizkariak, filmari buruzko prentsa-artikuluak, filmaketari buruzko dokumentuak, Maurice Champreux beraren koadernoak eta korrespondentzia ugari. Argazkiak ere badaude, filmaketari buruzkoak guztiak ere.

Material hori guztia KOHAn katalogatu da eta 221 erregistro berri sortu dira. Gainera, 69 argazkiak digitalizatu egin dira, kontserbatzeko eta errazago eskuratu eta zabaldu ahal izateko.

mero hablado en francés rodado en exteriores. También es la primera película en la que se oye hablar euskera. A través de sus imágenes, Maurice Champreux recorre el País Vasco, desde sus montes a su costa y por primera vez las imágenes van acompañadas de sonido. Basado en la novela del mismo título de Gaetan de Bernoville.

Esta colección se compone de diferentes tipos de materiales: varios libros y revistas, artículos de prensa sobre la película, documentos sobre el rodaje, cuadernos del propio Maurice Champreux y numerosa correspondencia. Además, también se incluyen fotos, todas ellas relacionadas con el rodaje.

Todo este material se ha catalogado en KOHA creando así 221 nuevos registros. Además, las 69 fotografías han sido digitalizadas para su conservación y facilitar su acceso y difusión.

ARGITALPEN DESKATALOGATUAK DIGITALIZATZEA

Euskadiko Filmategiak 80ko eta 90eko hamarkadetan editatutako 15 argitalpen digitalizatu dira (deskatalogatuta daude gaur egun, eta ale bakan batzuk baino ez dira gordetzen), argitalpen horiek kontserbatzeko eta errazago eskuratu eta kontsultatu ahal izateko.

Batetik, *Haritzaren negua: Ama Lur y el País Vasco de los años 60* eta bestelako obra ezagunak eta, bestetik, Pedro Olea, Nemesio Sobrevila eta bestelako zinemagile batzuei eskainitako monografia garrantzitsuak dira.

DIGITALIZACIÓN DE PUBLICACIONES DESCATALOGADAS

Con el objetivo de conservar y facilitar su consulta y acceso, a finales de 2023 se ha llevado a cabo la digitalización de 15 publicaciones editadas por la Filmoteca Vasca entre los años 80 y 90 que hoy en día están descatalogadas y de las que solo se conservan unos pocos ejemplares.

Se trata de títulos emblemáticos como *Haritzaren negua: Ama Lur y el País Vasco de los años 60* o importantes monografías dedicadas a cineastas como Pedro Olea o Nemesio Sobrevila.



LIBURUTEGIAN EGINDAKO KONTSULTAK

Ikerketa bat egiten ari den edo gure monografia edo aldizkarietakoren bat kontsultatzeko premia duen edozein erabiltzailearen eskura daude liburutegiko funtsak. Hitzordua eskatu behar da kontsultak egin ahal izateko; hala, aldez aurretik prestatzen da eskatutako materiala, erreserbako funtsean baitaude batzuk.

Liburutegirako bisitak % 30 inguru hazi dira 2022ko datuen aldean, hein batean, Euskadiko Filmategiak Elías Querejeta Zine Eskolarekin (EQZE) eta Donostiako Zinemaldiarekin egindako lankidetzari eta irakasleek eta ikasleek, beren ikerketa-lanetan, funts bibliografikoak eta hemeroteka kontsultatzeko duten premiari esker. Gainera, herritarrek eta José Ángel Herrero-Velarde ikerketa-bekako ikertzaileek Filmategiko liburutegian kontsultatu beharko dituzte Donostiako Zinemaldiko artxibategiko funtsak.

CONSULTAS REALIZADAS EN LA BIBLIOTECA

Los fondos de la biblioteca están al alcance de cualquier usuario/a que esté realizando una investigación o que necesite consultar alguna de nuestras monografías o revistas. Las consultas se realizan con cita previa para que el material solicitado pueda ser previamente preparado, debido a que algunos de ellos se encuentran en el fondo de reserva.

Las visitas a la biblioteca han aumentado un 30 % con respecto a 2022, gracias en parte a la colaboración de la Fílmoteca Vasca con la Elías Querejeta Zine Eskola (EQZE) y con el Festival de San Sebastián y a la necesidad tanto de estudiantes como del profesorado de consultar los fondos bibliográficos y la hemeroteca para llevar a cabo sus trabajos de investigación. Además, la biblioteca de la Fílmoteca es el lugar establecido para consultar los fondos del archivo del Festival de San Sebastián por la ciudadanía, así como por los investigadores/as de las *Becas de Investigación José Ángel Herrero-Velarde*.

Artxiboa

Archivo

GIDOIAK

Euskadiko Filmategiak 1.000 gidoi original eta proiektu zinematografiko katalogatu baino gehiago ditu, publikoaren eta ikertzaileen eskura. Haietako batzuk bilduma pribatuetakoak dira, beste batzuk Antxon Eceiza zinemagilearen funtsekoak eta beste batzuk berriki jasotako Jacques Champreuxen funtsekoak.

KARTELAK

Filmategiaren funtsetan, Espainiako eta nazioarteko filmei buruzko 1.221 kartel inguru gordetzen dira; horietatik 600 baino gehiago, digitalizatuta.

GUIONES

La Fílmoteca Vasca dispone en la actualidad más de 1.000 guiones originales y/o proyectos cinematográficos catalogados y accesibles para el público y los investigadores/as. Algunos de ellos pertenecen a colecciones privadas diferentes, así como al fondo del cineasta Antxon Eceiza y los incorporados recientemente pertenecientes al fondo de Jacques Champreux.

CARTELES

En los fondos de la Fílmoteca se conservan 1.221 carteles de cine en papel de títulos tanto nacionales como internacionales de los cuales más de 600 están en formato digital.

Artxiboa

Archivo

KONTSERBAZIO FOTOKIMIKOA

Zaintza analogikoari dagokionez, film fotokimikoak katalogatu aurretik aztertu eta jasotzea da oraindik ere areto teknikoetako ohiko lana, baina gero eta lan-bolumen handiagoa dagonez, prozesua moteldu egiten da. Aipatzekoa da Elías Querejeta Zine Eskolako ikasleek, Euskadiko Filmategian artxibo adarreko praktikak egiten dituztenek, beste lan batzuen artean, 35 mm-ko kopia batzuk aztertzen dituztela.

Voltei eta artxibategiko hozte-ganberei dagokionez, mantentze-lan batzuk egin dira klimatizazio-sisteman 2023an.

KONTSERBAZIO DIGITALA

Kontserbazio digitalaren eremuan, 2022ko geldiunearen ondoren, LIBSAFE gordailu digitalean fitxategiak sartzen jarraitu dugu.

CONSERVACIÓN FOTOQUÍMICA

En lo que se refiere a la preservación analógica, la labor de repaso y recopilación de las películas fotoquímicas para su catalogación ha sido y sigue siendo el trabajo cotidiano de las salas técnicas, pero el cada vez mayor volumen de trabajo ralentiza dicho proceso. Cabe destacar que las/los estudiantes de la Escuela de Cine Elías Querejeta que anualmente realizan sus prácticas de la rama de archivo en la Filmoteca Vasca, se ocupan, entre otras labores, de realizar el repaso de algunas de esas copias en 35mm.

En cuanto a los voltios o cámaras refrigeradas del archivo, durante el ejercicio 2023 se ha procedido la realización de varios trabajos de mantenimiento del sistema de climatización.

CONSERVACIÓN DIGITAL

En el ámbito de la preservación digital, tras un parón en 2022, se retomó la ingesta de ficheros digitales en el repositorio digital LIBSAFE.





LIBNOVA PLATAFORMAREN DATUAK 2022KO ABENDUAREN 31N


- 742 objektu biltegitatu dira, 108 Tb-eko memoria-edukierakoak. 195 elementu biltegitatu dira 2023an.
- Gaur egun, 192 Tb da sistemaren guztizko edukiera.
- Biltegitatutako objektu bakoitzak katalogazio-metadatuak ditu xml formatuan, bai eta material osagarria ere.
- Gordailuan, alde batetik, beste erakunde batzuek (Eusko Jaurlaritzak, Zineuskadi...) gordetako materiala dago, eta, bestetik, Filmategiaren beraren artxibategian jasotako material fotokimikoaren digitalizazioak.
- Objektu bakoitzak hiru kopia ditu: bat offline, kanpoko disko gogorrean; bigarrena Filmategiaren biltegian; eta hirugarrena, azkenik, Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren biltegian. Informazio hori zehaztuta geratzen da katalogazioan.
- Biltegiaren interfazearen bidez, gainera, wikira sar daiteke, eta hantxe dago jasota informazio guztia: babesteko planarekin, objektuak hartzeko prozesuekin eta teknikarien oharrekin lotutakoa. Erabiltzaile guztiek eskuar dezakete wikia.

DATOS LIBNOVA A 31 DE DICIEMBRE DEL 2022

- Se han almacenado 742 objetos que ocupan una capacidad de memoria de 108 Tb. En 2023 se han almacenado 195 elementos.
- La capacidad total del sistema actualmente es de 192 Tb.
- Cada objeto almacenado tiene sus metadatos de catalogación en formato xml y material complementario.
- El material conservado en el repositorio es, por una parte, material depositado por otras entidades (Gobierno Vasco, Zineuskadi...); por otra, se trata de digitalizaciones de material fotoquímico conservado en el archivo de la propia Filmoteca.
- Cada objeto tiene una copia en discos duros externos offline, una copia en el repositorio de la Filmoteca y una copia de seguridad en otra área geográfica, en Vitoria-Gasteiz, en el repositorio del Gobierno Vasco. Esta información se refleja también en la catalogación.
- A través del interfaz del repositorio, además, se puede acceder a la wiki, donde se encuentra toda la información relacionada con el plan de preservación, los procesos de ingesta de los objetos y anotaciones de los técnicos. Todos los usuarios tienen acceso a la wiki.

Digitalizazioa eta zaharberritze lanak

Digitalización y restauración



2023ko ekitaldian, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ohiz kanpoko laguntza bat eman zuen digitalizazioaren alorreko inbertsioetarako. Sail teknikoa materialak digitalizatzeko elementu berriz hornitzeko erabili zen 350.000 euroko dirulaguntza hori.

MWA SPINNER2 ESKANERRA EROSTEA

Dirulaguntzaren zatirik handiena urrats guztietako material fotokimikoak (8 mm/S8 - 9,5 mm - 16 mm/S16 - 17,5 mm - 22 mm - 28 mm - 35 mm) digitalizatzeko eskaner profesional bat erostera bideratu zen. Eskanerra erosteko (190.000 euro) lehiaketa publiko bat egin zen ekainean. Alemaniako MWA enpresak irabazi zuen lehiaketa, zeinak bere MWA Spinner2 eskanerra eskaini baitzuen, filmak 13,5 K-n eskaneatzeko aukera ematen duena.

Lehiaketa esleitu ostean, MWAk 2023ko azaroan instalatu zuen eskanerra. Teknikariak tresna berriarekin trebatzeko ikastaro bat eman zuten eta funtzionamenduan jarri zuten eskanerra.

En el ejercicio 2023, el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco otorgó una ayuda extraordinaria para acometer inversiones en materia de digitalización. Se trata de una subvención de 350.000 euros que se utilizaron para equipar al departamento técnico de nuevos elementos para la digitalización de materiales.

COMPRA ESCÁNER MWA SPINNER2

La mayor parte de dicha subvención se destinó a la compra de un escáner profesional para digitalizar materiales fotoquímicos de todos los pasos (8mm/S8 - 9.5mm - 16mm/S16 - 17,5 mm - 22mm - 28mm - 35mm). Durante el mes de junio se llevó a cabo un concurso público para la compra de este escáner con un coste de 190.000 euros. La ganadora del concurso fue la empresa alemana MWA que ofreció su escáner MWA Spinner2, que dispone de un sensor con el que se pueden escanear películas en 13.5K.

Tras la adjudicación del concurso, MWA procedió a su instalación durante el mes de noviembre de 2023. Se ofreció un curso de familiarización con el mismo al personal técnico y se puso en funcionamiento.



POSTPRODUKZIOKO, ZAHARBERRITZEKO ETA BILTEGIRATZEKO EKIPAMENDUA EROSTEA

Eskanerraren osagarri gisa, fitxategi digitalen postprodukzioarako eta haiek zaharberritzeko eta biltegiratzeko ekipamendua erosi behar zen. Horretarako, irailean lizitazio bat abiarazi zen, Filmategiaren premietara ondoen egokitzen zen eskaintza hautatzeko. Trigital Infográfica SL enpresak irabazi zuen, eta elementu haiek hornitu zizkion Filmategiari:

- NAS IFT GS30ST3 biltegiratzea. Kalitate handiko fitxategiak gordetzeko gordailu bat da; lanak eskaneatzen direnetik postprodukzio-lanak egin bitarteko fitxategiak eta zaharberritzekoak gordetzeko dira. 203 Tb errealeko edukiera du NASak eta fitxategi bera postprodukzio eta zaharberritzeko zenbait lantaldek aldi berean erabiltzeko aukera ematen du.
- Workstation Postproducción AMD. Ahalmen handiko postprodukzio-estazio honen bidez irudiak tratatzen dira, gero postproduzitzeko edo zaharberritzeko.
- 4K HDR erreferentzia-monitorea. 4K Eizo monitore honetan, postproduzitu eta zaharberritu beharreko irudiak kalitaterik handienean ikusten dira.
- LTO-9 irakurgailu/grabagailuarekiko artxibatze-sistema. Film digitalak zaharberritu ondoren, euskarri gisa Apple ordenagailu bat duen LTO zinta-sistema batean gordetzen dira fitxategi astunenak.
- Da Vinci Resolve postprodukzio softwarea.
- Diamant zaharberritze softwarea.

COMPRA DE EQUIPOS DE POSTPRODUCCIÓN, RESTAURACIÓN Y ALMACENAMIENTO

Para completar la compra del escáner era necesario adquirir también un equipo que permitiera la postproducción, restauración y almacenamiento de los archivos digitales de alta calidad. Para ello, en septiembre se puso en marcha una licitación para elegir la oferta que mejor se ajustara a las necesidades de la Filmoteca. La empresa ganadora fue Trigital Infográfica S.L., que suministró a la Filmoteca los siguientes elementos:

- Almacenamiento NAS IFT GS30ST3. Un repositorio donde se almacenarán los ficheros de alta calidad desde que se realiza el escaneado y mientras se realizan los trabajos de postproducción y restauración. Con una capacidad de 203 Tb reales, este NAS permite la utilización simultánea del mismo fichero por parte de diversos equipos de postproducción y restauración.
- Workstation Postproducción AMD. Una estación de postproducción de alta capacidad donde se puede realizar el tratamiento de imágenes para su postproducción o su restauración.
- Monitor de referencia 4K HDR. Un monitor 4k Eizo que permitirá ver las imágenes a postproducir y restaurar a la más alta calidad.
- Sistema de Archivo con lector/grabador LTO-9. Tras la restauración de las películas digitales, los archivos resultantes más pesados se almacenan en un sistema de cintas LTO que cuenta con un ordenador Apple como soporte.
- Software de postproducción Da Vinci Resolve.
- Software de restauración Diamant.



TASIO FILMA (MONTXO ARMENDARIZ, 1984) ZAHARBERRITZEA

Eusko Jaurlaritzak eskainitako ohiz kanpoko dirulaguntzaren testuinguruan, film historiko bat, euskal zinemagintzako klasiko bat, zaharberritzea barne hartzen zen. *Tasio* (Montxo Armendariz, 1984) hautatu zen, bere kalitate ukaezinagatik eta gure zinematografian duen garrantziagatik. 2024an 40 urte bete dira Victoria Eugenia antzokian estreinatu zenetik, Donostiako Zinemaldian. Mercury Films etxearekin (eskubideen jabea) eta zuzendari nafarrekin adostu ondoren, filma L'Immagine Ritrovata laborategietan (Bologna) zaharberritu da, munduko laborategi entzute-suenetariko batean.

Zaharberritze-lanak egiteko, Espainiako Filmategiaren artxibategian dauden material negatiboak eskatu zitzaizkion erakunde horri eta Italiara bidali ziren, erreferentziatzko kopia positibo batekin batera.

Urte-amaieran, azken kolore- eta soinu-doikuntzak egin zituen Armendarizek Bolonian. Hemendik aurrera, euskal zinemagintzako film ikoniko hori zinema klasikoko nazioarteko jaialdi garrantzitsuetan eta zinemateketan zabaltzeko ahalegina egingo du Euskadiko Filmategiak.

RESTAURACIÓN DE LA PELÍCULA *TASIO* (MONTXO ARMENDÁRIZ, 1984)

Dentro de la subvención extraordinaria ofrecida por el Gobierno Vasco se contemplaba la restauración de una película histórica, un clásico del cine vasco. La elegida fue *Tasio* (Montxo Armendáriz, 1984), debido a su innegable calidad e importancia para nuestra cinematografía. En 2024 se cumplen 40 años desde su estreno en el teatro Victoria Eugenia durante el Festival de San Sebastián. De acuerdo con Mercury Films (propietaria de los derechos) y con el director navarro, la restauración se ha llevado a cabo en los laboratorios L'Immagine Ritrovata de Bologna, tal vez los más prestigiosos del mundo.

Para realizar dichos trabajos de restauración, se solicitaron a la Filmoteca Española los materiales negativos que se conservan en su archivo, y junto con una copia positiva de referencia, se enviaron los materiales a Italia.

A finales de año Armendáriz realizó los últimos ajustes de color y sonido en la ciudad italiana. A partir de ahora, la Filmoteca Vasca tratará de que esta película icónica del cine vasco se proyecte en los festivales internacionales más importantes de cine clásico, así como en distintas cinematecas.





Filmategira ekarritako materialak

Ingreso de materiales en la Filmoteca



2023an material ugari jaso dira Euskadiko Filmategian. Partikularrek borronteaz egindako ekarpenez gainera, beste ekarpen gordailu batzuk ere jaso dira 2023an; hona hemen garrantzitsuenak:

BRIDGESTONEREN GORDAILUA:

Galdakaoko Bridgestone pneumatiko-enpresak (garai bateko Firestone) 16 mm eta 35 mm-ko 25 film ekarri zituen. Digitalizatu gabe eta egoera txarrean zeuden dokumentu batzuk zituen biltegian. Irudiak lantegian bertan antolatuko duten erakusketa iraunkor batean erakustea da enpresaren helburua. Gordailu gehiago egingo dituzte datozen urteetan.

El año 2023 fue abundante en cuanto a depósitos realizados en la Filmoteca Vasca se refiere. Además de los habituales depósitos voluntarios de particulares, durante 2023 se realizaron varios depósitos destacables, entre los que cabe subrayar los siguientes:

DEPÓSITO BRIDGESTONE:

La empresa de neumáticos Bridgestone (antigua Firestone) de Galdakao depositó 25 películas de 16mm y 35mm. Conservaba en su almacén varios documentos en mal estado que no habían sido digitalizados. El objetivo de la empresa es mostrar las imágenes en una exposición permanente que organizarán en la propia fábrica. Durante los próximos años realizarán más depósitos.

LOTURA FILMSEN GORDAILUA:

Lotura Films SL ekoiztetxea, Juanba Berasategi zinemagile eta marrazkigileak sortua, Filmategiarekin harremanetan jarri zen beren lokaletan zuten film fotokimikoen funtsari buruzko iritzia galdetzeko. Lehenengo materialak ekoiztetxeko lokaletan aztertu ziren eta Filmategira eraman ziren gero. Elías Querejeta Zine Eskolako ikasleek egin zituzten gordailututako materialen inbentarioa eta aztertze-lanak. 35 mm-ko kopiak dira gehienak, Lotura etxearen ekoizpenetako eta dokumentaletako lan-materialak.

ÁLVARO AMANN RABANERAREN GORDAILUA:

Partikular baten gordailua da, 9,5 mm-ko Pathé Baby filmen kopuru handiagatik nabarmena. 9,5 mm-ko 652 bobina ditu gordailuak guztira. Oraindik ez dira digitalizatu, eta Euskadiko Filmategiak inoiz jaso duen 9,5 mm-ko filmen gordailurik handiena da. Pathé Baby bobina txiki gehienak film komertzialak dira, baina familiaren filmak ere badaude.

EHUKO ARTE EDERREN FAKULTATEAREN GORDAILUA:

Euskal Herriko Unibertsitateko Pablo Maravi irakasleak Euskadiko Filmategiari proposatu zion bere ikerketa-taldeak bildutako bideoarte-funtsa kontserbatzea eta digitalizatzea. Joan den mendeko 80ko eta 90eko hamarkadetan Euskal Autonomia Erkidegoan egin zen bideoarte biltzeko asmo handiko proiektu batez ari gara. Ehun bideo-zinta inguru gordailutu dira, U-matic gehienak, baina badaude Betacam zintak ere.

EUSKAL MENDIZALETASUNAREN MUSEOAREN GORDAILUA:

Euskal Mendizaleatasunaren Museoak mendizaleatasunaren, espedizioen, alpinismoaren eta abarren inguruko 14 film gordailutu ditu, eta Filmategiak digitalizatu egin ditu.

DEPÓSITO LOTURA FILMS:

La productora Lotura Films S.L., fundada por el cineasta y dibujante Juanba Berasategi, se puso en contacto con la Filmoteca para solicitar su opinión sobre el fondo fotoquímico de películas que conservaban en los locales de la propia productora. Tras realizar una primera inspección de los materiales en los locales de la productora, se procedió al traslado de los mismos a la Filmoteca. Los/las estudiantes de la Escuela de Cine Elías Querejeta se encargaron de realizar el inventario e inspección de los materiales depositados. En su mayoría se trata de copias en 35mm, materiales de trabajo de diversas producciones y documentales de Lotura.

DEPÓSITO ÁLVARO AMANN RABANERA:

Se trata de un depósito de un particular que destaca por su gran cantidad de películas Pathé Baby de 9,5mm. En total, el depósito consta de 652 bobinas de 9,5mm. Aunque todavía no han sido digitalizadas, se trata del mayor depósito de películas de 9,5mm nunca recibido en la Filmoteca Vasca. La gran mayoría de estas pequeñas bobinas Pathé Baby son películas comerciales, aunque hay una parte del depósito compuesto por películas familiares.

FONDO FACULTAD DE BELLAS ARTES DE LA UPV:

El profesor Pablo Maravi de la Universidad del País Vasco propuso a la Filmoteca Vasca conservar y digitalizar el fondo de videoarte recopilado por su grupo de investigación. Se trata de un ambicioso proyecto de recopilación del videoarte que se realizó en la Comunidad Autónoma Vasca en las décadas de los 80 y 90 del pasado siglo. En total, se han depositado un centenar de cintas de vídeo, en su mayoría U-matic aunque también hay cintas Betacam.

DEPÓSITO MUSEO VASCO DE MONTAÑA:

El Museo Vasco de Montaña depositó 14 películas de montaña, expediciones, de alpinismo..., que la Filmoteca ha digitalizado.

Sartutako materialen zerrenda 2023

Relación de ingreso de
materiales 2023

DCP

32

FITXATEGI DIGITAL / ARCHIVOS DIGITALES

32

(.avi, .mp4, .mov / .avi, .mp4, .mov)

DVD

7

SUPER-8 MM-KO / SUPER-8 MM

250 / 29

Bobina / Bobinas

Gordailuzainek emanak / Depositantes

BLURAY

5

8 MM-KO / 8MM

69 / 9

Bobina / Bobinas

Gordailuzainek emanak / Depositantes

16 MM-KO / 16MM

114 / 13

Bobina / Bobinas

Gordailuzainek emanak / Depositantes

VHS

2

Zinta / Cintas

35 MM-KO / 35MM

36 / 119 / 7

Kopia / Copias

Bobina / Bobinas

Gordailuzainek emanak / Depositantes

BETAMAX

6

Zinta / Cintas

9,5 MM-KO / 9,5 MM

652 / 4

Bobina / Bobinas

Gordailuzainek emanak / Depositantes

BETACAM SP DIGITAL

3

Zinta / Cintas

U-MATIC

148

Zinta / Cintas

VIDEO

8

Zinta / Cintas

Artxiboa guztira

2023-12-31

Total fondo de
archivo a 31-12-2023

35 MM-KO FILMAK / PELÍCULAS EN 35MM

7.157 / 35.517

Kopia / Copias

Bobina / Bobinas

FILM NEGATIBOEN MATERIALAK /
MATERIALES DE NEGATIVOS DE PELÍCULAS

205 / 1.496

Titulu / Títulos

Bobina / Bobinas

16 MM-KO FILMAK / PELÍCULAS EN 16MM

1.752 / 1.861

Kopia / Copias

Bobina / Bobinas

9,5 MM-KO FILMAK / PELÍCULAS EN 9,5MM

1.403

Bobina / Bobinas

8 MM ETA SUPER-8 MM-KO FILMAK
PELÍCULAS DE 8MM Y SUPER-8MM

896

Gordailu / Depósitos

HAZBETE-zintak / Cintas DE PULGADA

709

Zinta / Cintas

VHS ETA BETAMAX zintak
Cintas VHS Y BETAMAX

4.726

Zinta / Cintas

DVD KOMERTZIALAK ETA FAMILIARRAK
DVDs COMERCIALES Y FAMILIARES

4.447

DVD

BETACAM SP zintak (ANALOGIKOAK)
Cintas BETACAM SP (ANALÓGICAS)

1.452

Zinta / Cintas

DCPAK ETA FITXATEGI DIGITALAK
DCPs Y ARCHIVOS DIGITALES

1.824

BETACAM DIGITAL zintak
Cintas BETACAM DIGITAL

552

Zinta / Cintas

VIDEOMA SISTEMAN GORDETA KO TITULUAK ETA ORDUAK
TÍTULOS Y HORAS ALMACENADAS EN EL SISTEMA VIDEOMA

3.290 / 2.725

Titulu / Títulos

Ordu / Horas

U-MATIC zintak / Cintas U-MATIC

1.079

Zinta / Cintas

BESTELAKO MATERIAL BIDEOGRAFIKOA
OTROS MATERIALES VIDEOGRÁFICOS (MINI-DV, VIDEO-8...)

277

Zinta / Cintas

Ikus-entzunezko funtsak kontsultatzea

Consulta de fondos audiovisuales

Bere zaintzapean dauden ikus-entzunezko fitxategietarako sarbidea emateko konpromisoari eutsi dio Euskadiko Filmategiak, euskal ondare zinematografikoa bultzatzeko eta zabaltzeko; fitxategi horiek birtualki edo presentzialki kontsultatu daitezke. 2023an, 100 pertsonak 70 aldiz ikuskatu zuten materiala; guztira, 162 ordu. 2022aren aldean, pixka bat behera egin dute ikuskatze-kontsultek.

2022an, helburu akademikoekin egindako kontsulten eta ikus-entzunezkoen industriari lotutako kontsulten kopurua ia berdina izan zen. Aurten, datuak sendotu egin dira. Izan ere, ikustaldien % 50 helburu akademikoekin (ikerketa, irakaskuntza eta ikasketak) egin dira eta gainerako % 50ek ikus-entzunezkoen proiektuekin izan dute zerikusia.

La Filmoteca Vasca ha mantenido su compromiso de dar acceso a sus archivos audiovisuales, tanto de forma virtual como presencial, y así promover y difundir el patrimonio cinematográfico vasco. En 2023, 100 personas realizaron 70 visionados, lo que supuso un total de 162 horas. En comparación con 2022, se observa una ligera disminución en las consultas de visionados.

En el año 2022 alcanzó casi el mismo número de consultas con fines académicos que con objetivos vinculados a la industria audiovisual. Este año las cifras se han consolidado, ya que el 50% de los visionados han tenido que ver con propósitos académicos (investigación, enseñanza y estudios), mientras que el 50% restante estaba relacionado con proyectos audiovisuales.





Elías Querejeta Zine Eskolarekin lankidetzan jarraitzen du Filmategiak, eta ikustaldien zati esanguratsu bat hango ikasleek egin dute; ikerketa-proiektuak lantzen dihardute gehienek. Lankidetzak horrek bi erakundeen arteko lotura sendotzeko eta ikasleen esperientzia akademikoa aberasteko balio du, gure ikus-entzunezko funtsetarako zuzeneko sarbideari esker. Euskadiko Filmategiaren eta Elías Querejeta Zine Eskolaren arteko sinergiak zinematografiaren alorreko talentu berriak garatzen eta modu integratzean prestatzen laguntzen du.

Aurreko urteetan bezala, Euskadiko Filmategia funtsezko artxibategi zinematografikoa izan da nazioarteko ikerketa-proiektu ugarran.

Profesionalek egindako ikustaldien % 50ek, gutxi gorabehera, ikusitako irudien kudeaketa eta erabiltzera izan zuten ondorio.

La Filmoteca mantiene la colaboración con la Elías Querejeta Zine Eskola, y una parte significativa de los visionados los han llevado a cabo sus estudiantes; la mayor parte están enfocados a proyectos de investigación. Esta colaboración fortalece el vínculo entre ambas instituciones y enriquece la experiencia académica de los/las estudiantes al proporcionarles acceso directo a nuestros fondos audiovisuales. La sinergia entre la Filmoteca Vasca y la Elías Querejeta Zine Eskola contribuye a fomentar el desarrollo y la formación integral de nuevos talentos en el ámbito cinematográfico.

Al igual que en los años anteriores, la Filmoteca Vasca ha sido un archivo cinematográfico indispensable para numerosos proyectos de investigación internacionales.

Aproximadamente el 50% de los visionados realizados por profesionales del ámbito profesional culminaron con la gestión y posterior utilización de imágenes.

Programazioa

Programación



2023an gorantz jarraitu zuen Euskadiko Filmategiaren programazioko ikus-entzuleen kopuruak. Pandemiak markatutako urteak atzean geratu ziren eta lau zikloek (Zinema eta zientzia, Lumière emanaldiak II, Jazzinema eta Euskal emakume zinemagileak III) harrera ona izan zuten, oro har. Programazio osoa eskaini zen bost egoitzetako bitan (Donostia eta Gasteiz); Iruñean hiru lehenak programatu ziren; eta, Bilbon, Arte Ederren Museoko hobekuntza-lanak zirela eta, lau zikloetatik bi eman ziren (Zinema eta zientzia eta Lumière saioak). Bestalde, Filmategiaren programazioko filmetako batzuen egoitza izaten jarraitu zuen Donibane Lohitzunek; modu esanguratsuan areagotu da hiri horretan emandako filmen kopurua, zeina Frantziako banaketaren berezitasunei lotzen baitzaie.


Ikusle-kopuruaren igoera nabarmena da: 7.707tik (2022) 9.710ra (2023) igaro da. Eta kontuan hartuta 2023an 125 saio egin zirela (2022an baino 18 gutxiago), balantzea oso positiboa da. Saio bakoitzeko 53,90 ikusle izatetik 77,68 izatera ugari gara. Hala ere, oraindik urrun daude 2019ko (pandemiaren aurreko azken ekitaldia) saioa 132,33 ikusleak. Aipatzekoa da garai hartan bi egoitzatan baino ez zirela ematen saioak: Donostia eta Bilbo (emaitzarik onenak dituztenak).

Egoitzak banaka aztertzen baditugu, ikusten dugu Donostian 2019ko emaitzak gainditu direla azken urtean (141,54 ikusle/saio 2019an; 103,02 ikusle/saio 2022an; eta 145,91 ikusle/saio 2023an), baina kopuru absolututan ikusle gehiago izan zen 2019an (6.374) 2023an baino (5.107). Baina 10 saio gehiago ere izan ziren (45 eta 35).

En 2023, el número de asistentes de la programación de la Filmoteca Vasca continuó creciendo, en consonancia con los últimos ejercicios. Dejando ya atrás los años marcados por la pandemia, los cuatro ciclos (Cine y ciencia, Sesiones Lumière II, Jazzinema y Cineastas Vascas III) tuvieron una positiva acogida en líneas generales. Se ofreció la programación completa en dos de las cinco sedes (San Sebastián y Vitoria); en Pamplona se programan los tres primeros; y en Bilbao, y debido a las obras de mejora en el Museo de Bellas Artes, se ofrecieron dos de los cuatro ciclos (Cine y ciencia y Sesiones Lumière). Por su parte, San Juan de Luz siguió siendo sede de algunos de los filmes de la programación de la Filmoteca, habiendo crecido significativamente el número de películas en este emplazamiento, siempre sujeto a la especificidad de la distribución francesa.

El aumento de espectadores/as es claro: ha pasado de 7.707 (2022) a 9.710 (2023). Si a esto le sumamos que en 2023 se llevaron a cabo 125 sesiones (18 menos que en 2022), el balance es notablemente positivo. Se ha pasado de 53,90 espectadores/as por sesión a 77,68. Sin embargo, todavía quedan lejos los 132,33 espectadores/as por sesión de 2019 (el último antes de la pandemia). Cabe señalar que en aquel momento solo se proyectaba en dos sedes: Donostia y Bilbao (las que mejores resultados arrojan).

Analizando los datos por sedes, se puede constatar que en Donostia en el último año se han superado los resultados de 2019 (141,54 espectadores/as por sesión en 2019; 103,02 en 2022; y 145,91 en 2023), aunque en términos absolutos en 2019 hubo más espectadores (6.374) que en 2023 (5.107). Pero también hubo 10 sesiones más (45 frente a 35).



Bilbon (Arte Ederren Museoko obren eragina du oraindik egoitzak), ikusleen batez bestekoak behera egin du pixka bat 2019ko datuen aldean, baina hazkunde handia izan du 2022aren aldean (122,36 ikusle/saio 2019an; 62,10 ikusle/saio 2022an; eta 111,48 ikusle/saio 2023an). Bilboko emanaldiak Bizkaia Aretoan (EHU) egiten dira.

Gasteiz 2021ean sartu zen Euskadiko Filmategiaren programazioan. Artium Museoan ere igotera txiki bat izan dute ikusleek (18,79 ikusle/saio 2022an eta 24,79 ikusle/saio 2023an).

Iruñea 2022an sartu zen Euskadiko Filmategiaren programazioan; kasu honetan, bikoiztu egin da aurreko urteko ikusle-kopurua (22,20 ikusle/saio 2022an eta 45,29 ikusle/saio 2023an). Azkenik, Donibane Lohitzune aldakuntza oso txikia izan da, baina zentzu positiboan, betiere (28,25 ikusle/saio 2022an eta 30,18 ikusle/saio 2023an).

Saio-kopuruari dagokionez, 2019an 87 emanaldi egin ziren (bi egoitzarekin); 2023an, aldiz, 125 emanaldi (bost egoitzarekin). Hala ere, zenbateko hori 2022koa baino txikiagoa da, ekitaldi hartan 143 emanaldi izan baitziren.

Programazioaren ildo nagusiak ez dira aldatu:

Emakumezko euskal zinemagileak eta euskal ondare zinematografikoa oro har.

Kultura zinematografiko orokorra (klasiko eta titulu garrantzitsu berrienak, ziklo tematikoei edo atzera begirakoei loturik), bai eta komertzialki banatu gabeko zinema ere batzuetan.

Pisu espezifiko handia dute euskarazko azpitoluekin egindako lanek eta euskarazko jatorrizko bertsoiek.

En Bilbao (sede que sigue afectada por las obras en el Museo de Bellas Artes), la media de espectadores baja ligeramente con respecto a 2019, pero experimenta un fuerte crecimiento con respecto a 2022 (122,36 espectadores/as por sesión en 2019; 62,10 en 2022; 111,48 en 2023). Las proyecciones en Bilbao tienen lugar en el Bizkaia Aretoa (UPV/EHU).

Vitoria se incorporó a finales de 2021 a la programación de la Filmoteca Vasca. En Artium también se constata una modesta subida de espectadores (18,79 espectadores/as por sesión en 2022; y 24,79 en 2023).

Pamplona se sumó a la programación de la Filmoteca Vasca en 2022, y en este caso, duplica la media de espectadores del año anterior (22,20 espectadores/as por sesión en 2022; y 45,29 en 2023). Por último, en San Juan de Luz la variación es muy escasa, pero también en sentido positivo (28,25 espectadores/as por sesión en 2022; y 30,18 en 2023).

En cuanto al número de sesiones, en 2019 (con dos sedes) se ofrecieron 87 sesiones; en 2023 (con cinco sedes) fueron 125. Sin embargo, esta cifra es menor que la de 2022, con 143 pases.

Las líneas maestras de la programación siguieron siendo las mismas:

Cineastas vascas y patrimonio cinematográfico vasco en general.

Cultura cinematográfica general (clásicos y títulos relevantes más actuales asociados a ciclos temáticos o retrospectivas) y en ocasiones cine no distribuido comercialmente.

Importante peso específico del subtítulado al euskera o de versiones originales en euskera.

Programazioa / Programación > **Zinema zikloak** / Ciclos de cine

Zinema zikloak

Ciclos de cine

ZINEMA ETA ZIENTZIA

CINE Y CIENCIA

Urtarrila-martxoa / Enero-marzo

Euskadiko Filmategiak, Donostia International Physics Centerrek (DIPC) eta Donostia Zinemaldiak elkarrekin antolatu dute zikloa, eta kultura zinematografikoa eta zientifikoa zabaltzea du helburu. Horretarako, aukeraketa eklektiko bat egin zen Donostia International Physics Centerrekin batera, askotariko diziplina zientifikoetatik abiatuta askotariko ikuspegiak emateko. Eta, zikloaren ezaugarri nagusietako bati leial eutsirik, punta-puntako zientzialari-talde bat izan zen filmak aurkezten eta solasaldiak gidatzen. Seigarren edizioa izan zuen zinema eta zientzia uztartzen dituen programa arrakastatsu horrek.

Organizado por la Filmoteca Vasca, el Donostia International Physics Center (DIPC) y el Festival de San Sebastián, este ciclo persigue la transmisión y difusión conjunta de cultura cinematográfica y cultura científica. Para ello, junto al DIPC se eligió una serie muy ecléctica de títulos que daban pie a enfoques diversos desde diferentes disciplinas científicas. Y, fieles a una de las grandes señas de identidad del ciclo, un conjunto de científicas y científicos de altísimo nivel presentaron las películas y dirigieron los coloquios. Se trató de la sexta edición de este exitoso programa que aúna cine y ciencia.

Lekuak / Lugares:

Bilbo / Bilbao
Donostia / San Sebastián
Gasteiz / Vitoria-Gasteiz
Iruñea / Pamplona
Donibane Lohitzune / Saint-Jean-de-Luz

Antolaketa / Organización:

Euskadiko Filmatagia, DIPC, Donostia Zinemaldia / Filmoteca Vasca, DIPC, Festival de San Sebastián.

Laguntzaileak / Colaboradores:

Tabakalera, Arte Ederren Bilboko Museoa, EHU, Artium Museoa, Golem zinemak, Le Sélect zinema / Tabakalera, Museo de Bellas Artes de Bilbao, UPV/EHU, Artium Museoa, Cines Golem, Cinéma Le Sélect

Gonbidatuak / Invitados/as:

José Ramón Alonso, Amaia Arregi Buldain, María Blanco, Jean-Bernard Bru, Igor Campillo, Fernando Cossío, Ricardo Díez Muiño, Pedro Miguel Etxenike, Carmen Garde Orbaiz, Paula Gordaliza, Montse Hervella, Asier Hilario, Elisa Jiménez-Izal, José Antonio Lozano, Marta Olazabal, Juan Ignacio Pérez Iglesias, Janire Prudencio, Conchi de la Rúa, Juana Vegas, Mercedes Vila, Nerea Zabala, Daniel Zerzion.

Ikus-Entzuleak / Espectadores: 5.147



Filmak / Películas:

EL NOMBRE DE LA ROSA

CUANDO EL DESTINO NOS ALCANCE

LA HERENCIA DEL VIENTO

MADAME CURIE

¿TELÉFONO ROJO? VOLAMOS HACIA MOSCÚ

FIRE OF LOVE

PHILADELPHIA

DRÁCULA DE BRAM STOKER

UNA MENTE MARAVILLOSA

MARRAZOA

FIRE OF LOVE

(eskoletako ikasleentzako saioak)

(sesiones para escolares)

Programazioa / Programación > Zinema zikloak / Ciclos de cine

LUMIÈRE SAIOAK

SESIONES LUMIÈRE

Apirila-ekaina / Abril-junio



Lyongo Lumière Institutuarekin (eta Donostiako Zinemaldiarekin) lankidetzan jarraitu dugu 2023an; Frantziako erakunde entzutetsu horrek Lumière anaien lantegian du egoitza, eta zinema klasikoari eta film zaharberritu eta berreskuratuei eskainitako jaialdi bat antolatzen du. Euskadiko Filmategiak eta Lumière Institutuak elkarrekin prestatu zuten programazioa. Nabarmenezkoa da bi filmetan (*Gauean/En la noche* eta *Hiru garaiak/Las tres edades*) zuzeneko musika jo zutela Joserra Senperena eta Josetxo Fernández de Ortega piano-jotzaileek. Lehen filma pianoarekin lagunduta ikusi zuten Bilbon eta Donostian (Senperena piano-jotzailearen eskutik bietan) eta, bigarrena, lau egoitzatan (Senperenarekin Donostian eta Fernández de Ortegarekin Bilbon, Gasteizen eta Iruñean).

Junto con el Instituto Lumière de Lyon (y también con el Festival de San Sebastián), en 2023 continuamos la colaboración con esta prestigiosa institución francesa, que tiene su sede en la fábrica de los hermanos Lumière y que desarrolla un festival dedicado al cine clásico y a las películas restauradas y recuperadas. La elaboración de la programación se realizó conjuntamente entre la Filmoteca y el Instituto Lumière. Cabe destacar que en dos de las películas (*Gauean/En la noche* e *Hiru garaiak/Las tres edades*) se pudo disfrutar de música en directo, a cargo de los pianistas Joserra Senperena y Josetxo Fernández de Ortega. La primera película se vio con piano en Bilbao y Donostia (ambas a cargo de Senperena) y la segunda, en cuatro sedes (Senperena en Donostia y Fernández de Ortega en Bilbao, Vitoria y Pamplona).

Lekuak / Lugares:

Bilbo / Bilbao
Donostia / San Sebastián
Gasteiz / Vitoria-Gasteiz
Iruñea / Pamplona
Donibane Lohitzune / Saint-Jean-de-Luz

Antolaketa / Organización:

Euskadiko Filmategia, Lumière Institutua, Donostia Zinemaldia / ilmoteca Vasca, Instituto Lumière, Festival de San Sebastián.

Laguntzaileak / Colaboradores:

Tabakalera, Arte Ederren Bilboko Museoa, Artium Museoa, Golem zinemak, Le Sélect zinema / Tabakalera, Museo de Bellas Artes de Bilbao, Artium Museoa, Cines Golem, Cinéma Le Sélect.

Gonbidatuak / Invitados/as:

Maelle Arnaud, Thierry Frémaux

Ikus-Entzuleak / Espectadores: 2.459

Filmak / Películas:

GAUEAN / EN LA NOCHE

PECHOS ETERNOS

HIRU GARAIK / LAS TRES EDADES

LA PALABRA

APOCALYPSE NOW FINAL CUT

MIS PEQUEÑOS AMORES

GASOLIOA

TORO SALVAJE

EN EL CURSO DEL TIEMPO

JUSTICIA CUMPLIDA



Programazioa / Programación > Zinema zikloak / Ciclos de cine

JAZZINEMA

Uztaila / Julio

Arte Ederren Museoan egiten ari diren obrak direla-eta, zikloa ezin izan zen Bilbon egin. Bestalde, gainerako egoitzetan adina emanaldi eskaini ziren Donibane Lohitzunen, eta Gasteizko eta Iruñeko ikusleen kopuruak gainditu ziren hiri horretan.

Debido a las obras que están teniendo lugar en el Museo de Bellas Artes, este ciclo no se pudo celebrar en Bilbao. Por el contrario, en Saint-Jean-de-Luz se llevaron a cabo tantas proyecciones como en el resto de sedes, e incluso superó en número de espectadores los resultados de Vitoria y Pamplona.

Lekuak / Lugares:

Bilbo / Bilbao

Donostia / San Sebastián

Gasteiz / Vitoria-Gasteiz

Iruñea / Pamplona

Donibane Lohitzune / Saint-Jean-de-Luz

Antolaketa / Organización:

Euskadiko Filmategia / Filmoteca Vasca.

Lankidea / Colaboración: Tabakalera, Arte Ederretako Bilboko Museoa, Artium Museoa, Golem, Le Sélect zinema, Donostiako Jazzaldia, Jazz Vitoria-Gasteiz, Getxoko Nazioarteko Jazzaldia / Tabakalera, Museo de Bellas Artes de Bilbao, Artium Museoa, Golem, Cinéma Le Sélect, Jazzaldia de Donostia, Jazz Vitoria-Gasteiz.

Gonbidatuak / Invitados/as:

Alberto Ibarondo, Miguel Martín.

Ikus-Entzuleak / Espectadores: 725

Filmak / Películas:

SOUL

THELONIOUS MONK. REWIND & PLAY

EL TROMPETISTA

BLUE GIANT

BIRD

AUTOUR DE MINUIT

Uztaila
Julio
2023

O DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
 VITORIA-GASTEIZ
 IRUÑEA / PAMPLONA
 DONIBANE LOHITZUNE /
 SAINT-JEAN-DE-LUZ

Informazio gehiago | Más información
www.filmoteka.eus



JAZZINEMA

Antolatzailea / Organizador
Kolaboratzaileak / Colaboradores



EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECA VASCA
CINÉMATHEQUE BASQUE



58
jazzaldia



Vitoria
Gasteiz



ISSIFF International Society of
Musical Film Festivals

Programazioa / Programación > **Zinema zikloak** / Ciclos de cine

EUSKAL EMAKUME ZINEMAGILEAK III CINEASTAS VASCAS III

Urria-abendua / Octubre-diciembre

Emakumezko euskal zuzendariei eskainitako hirugarren zikloa; gutxienez film luze bat egin duten eta 1970 eta 1975 bitartean jaio ziren zinemagileak izan dira protagonistak. Donostiako eta Gasteizko egoitzetan bakarrik egin zen zikloa. Batek izan ezik, zuzendari guztiek aurkeztu zituzten beren filmak aretoan, eta, ia gehienek, bi egoitzetan

Segunda entrega del ciclo dedicado a las realizadoras vascas, que en esta ocasión puso su foco sobre las cineastas nacidas en la década de los 60 del siglo pasado, autoras de al menos un largometraje. Esta vez el ciclo contó tan solo con proyecciones en San Sebastián y Vitoria-Gasteiz, debido a las obras de rehabilitación que se llevaron a cabo en el Museo de Bellas Artes de Bilbao. Las directoras presentaron sus trabajos en ambas ciudades.

Lekuak / Lugares:

Donostia / San Sebastián
Gasteiz / Vitoria

Antolaketa / Organización:

Euskadiko Filmategia / Filmoteca Vasca.

Lankidea / Colaboración:

Tabakalera, Artium Museoa

Gonbidatuak / Invitadas:

Leire Apellaniz, Izaskun Arandia, Helena Bengoetxea, Iratxe Fresneda, Bertha Gaztelumendi, Enara Goikoetxea, Olatz González de Abrisketa, Estela Ilárraz, Jone Karres, Iurre Telleria, Rosa Zufia.

Ikus-Entzuleak / Espectadores: 1.379

Filmak / Películas:

ARNASA BETEAN

EL SUEÑO DE LA SULTANA

MATRIOSKAS LAS NIÑAS DE LA GUERRA

PRÓXIMA ESTACIÓN

ALARDEAREN SEME-ALABAK

MY WAY OUT

AZKEN BIDAIA

PELOTA II

IRRINTZIAREN OIHARTZUNAK

EL ÚLTIMO VERANO



Programazioa / Programación > Zinema zikloak / Ciclos de cine

BESTEAK

OTROS

Gure ohiko kolaborazioen artean, Donostia Kulturarekin batera egiten dena nabarmentzen jarraitu behar da: Nosferatu. Zikloa *polarari* eskaini zitzaion, Frantziako zinema beltzari, eta hogeita hamar bat film izan ziren, zinema mututik XX. mendearen amaiera bitartekoak; adibidez, *Fantômas: a la sombra de la guillotina* (Louis Feuillade, 1913), *Ménilmontant* (Dimitri Kirsanoff, 1926), *La golfa* (Jean Renoir, 1931), *Coup de torchon* (Bertrand Tavernier, 1981), *El cuervo* (H. G. Clouzot, 1943), *Touchez pas au grisbi* (Jacques Becker, 1954) eta *Los raíles del crimen* (Costa-Gavras, 1965).

Euskal zinema sustatzeari dagokionez eta Etxepare Euskal Institutuarekin lankidetzan, nabarmentzekoa da Nantesko Zinema Espainiarreko Jaialdiko Euskal Leihoa zikloa, euskal zinemari buruzko ziklo garrantzitsua eta zaharrena gure mugetatik kanpo. Euskal filmen presentzia nabarmena izan zen beste behin ere: *Suro* (Mikel Gurrea, 2022), *Cinco lobitos* (Alauda Ruiz de Azua, 2022), *A los libros y a las mujeres canto* (María Elorza, 2022), *Llegaron de noche* (Imanol Uribe, 2023), *A quien cierra los ojos* (Ana Díez, 2023). Hona hemen beste batzuk: Iratxe Fresneda (*Tetuán*), Jabi Elortegi (*El vasco*), Fermín Muguruza (*Black is Beltza II*), Aritz Moreno (*Ventajas de viajar en Tren*) eta urteko euskal film labur onenen uzta (*Kimuak*). Irabazleen artean ditugu *Cinco lobitos* (Alauda Ruiz de Azua, 2022), Fikzio Dokumental Onenaren Saria jaso zuena, eta *Cuerdas* (Estibaliz Urresola, 2022), publikoaren Film Labur Onenaren Sariaren irabazlea.

Zinemaldiarekin lankidetzan jarraitu dugu Zinemiran, atzerabegirako klasikoan (Teshigahara) eta Ikastetxeak Belodromoan ekimenean.

Entre nuestras colaboraciones habituales, hay que seguir destacando la que se lleva a cabo junto a Donostia Kultura: Nosferatu. El ciclo estuvo dedicado al *polar*, el cine negro francés, y contó con una treintena de títulos desde el cine mudo hasta finales del siglo XX: desde *Fantômas: a la sombra de la guillotina* (Louis Feuillade, 1913), *Ménilmontant* (Dimitri Kirsanoff, 1926) o *La golfa* (Jean Renoir, 1931) hasta *Coup de torchon* (Bertrand Tavernier, 1981), pasando por *El cuervo* (H. G. Clouzot, 1943), *Touchez pas au grisbi* (Jacques Becker, 1954) o *Los raíles del crimen* (Costa-Gavras, 1965).

En el ámbito de la promoción del cine vasco y en colaboración con el Instituto Vasco Etxepare, cabe destacar el ciclo la Ventana Vasca del Festival de Cine Español de Nantes, el ciclo de cine vasco más importante y veterano fuera de nuestras fronteras. La presencia de películas vascas fue una vez más notable: *Suro* (Mikel Gurrea, 2022), *Cinco lobitos* (Alauda Ruiz de Azua, 2022), *A los libros y a las mujeres canto* (María Elorza, 2022), *Llegaron de noche* (Imanol Uribe, 2023), *A quien cierra los ojos* (Ana Díez, 2023). Otras presencias vascas fueron: Iratxe Fresneda (*Tetuán*), Jabi Elortegi (*El vasco*), Fermín Muguruza (*Black is Beltza II*), Aritz Moreno (*Ventajas de viajar en Tren*) y la cosecha de los mejores cortometrajes vascos del año (*Kimuak*). Respecto al palmarés cabe destacar que *Cinco lobitos* (Alauda Ruiz de Azua, 2022) fue la ganadora del Premio a la Mejor Película de Ficción Documental y *Cuerdas* (Estibaliz Urresola, 2022) fue elegido por el público el Mejor Cortometraje del Festival.

Con el Zinemaldia ha proseguido la colaboración tanto en Zinemira, en la retrospectiva clásica (Teshigahara) y en Ikastetxeak Belodromoan.


Euskara

Euskera

KOLEGIOA ZINEMARA

Euskadiko Filmategiak lankidetzan lan mardula abiarazi zuen 2022an *Kolegioa zinemara* programa abian jartzeko lan egiten duten erakundeekin. Haien artean, Pirinio Atlantikoetako Departamendua, Zinema eta Irudi Animatuaren Frantziako Zentro Nazionala, Akitania Berriko Kultura Gaietarako Eskualde Zuzendaritza, Bordeleko Akademia, Euskal Kultur Erakundea eta Euskararen Erakunde Publikoa. Helburua da *Irudietarako hezkuntzan* lan egitea Ipar Euskal Herriko eskola-umeekin, eta euskarazko jatorrizko bertsoia duten filmak ematea: Zehazki, *Bertsolari* eta *Nora* filmak hautatu ziren arretotan emateko, eta dosierrak prestatu ziren irakasle eta ikasleentzat, bai euskaraz, bai frantsesez.

La Filmoteca Vasca comenzó en 2022 una intensa colaboración con numerosas instituciones que trabajan para poner en marcha el programa *Kolegioa zinemara*: Département des Pyrénées Atlantiques, CNC, la DRAC de Nouvelle Aquitaine, l'Académie de Bordeaux, l'Institut Culturel Basque, l'Office public de la langue basque. Se trata de trabajar en el ámbito de la *Educación para las imágenes* entre escolares del País Vasco francés, introduciendo películas en versión original en euskera: Concretamente, las películas *Bertsolari* y *Nora* fueron las elegidas para ser vistas en salas y se elaboraron dosieres para el profesorado y para estudiantes respectivamente, tanto en francés como en euskera.



EUSKARAZKO AZPIDATZIAK

CON SUBTÍTULOS EN EUSKERA

Euskadiko Filategiak jatorrizko bertsoan proiektatzen ditu filmak, azpituluekin. Horri euskarazko azpitoluak sustatzeko helburua gehitu behar zaio, gure hizkuntzaren erabilera bultzatzeko. Hala, euskarazko azpitolu elektronikoetarako itzulpen ugari eskatzen dira. Aurten, Donostia Zinemaldiarekin eta Donostia International Physics Centerrekin (DIPC) lankidetzan, 13.439 eskola-umek baino gehiagok ikusi zuten *Boonie Bears: Abentura Historiaurrean* filma euskaraz belodromoan. Halaber, film hauek ikusi ahal izan ziren euskarazko jatorrizko bertsoan edo euskarazko azpituluekin:

Las películas que programa la Filmoteca Vasca se proyectan en versión original subtitulada. A esto hay que añadir el objetivo de fomentar los subtítulos en euskera para impulsar el uso de nuestra lengua. Así, para los subtítulos electrónicos en euskera se encargan numerosas traducciones. Este año, en colaboración con el Festival de Cine de San Sebastián y el Donostia International Physics Center (DIPC), más de 13.439 escolares vieron en euskera en el Velódromo *Boonie Bears: Abentura Historiaurrean*. Asimismo, estas fueron las películas que se pudieron ver en versión original en euskera o con subtítulos en euskera:

ARNASA BETEAN (Bertha Gaztelumendi, Rosa Zufía, 2023)

EL SUEÑO DE LA SULTANA (Isabel Herguera, 2023)

ALARDEAREN SEME-ALABAK (Jone Karres, Eneko Olasagasti, 2023)

AZKEN BIDAIA (Enara Goikoetxea, Iurre Telleria, 2011)

PELOTA II (Olatz González Abrisketa, Jørgen Leth, 2015)

IRRINTZIAREN OIHARTZUNAK (Iratxe Fresneda, 2016)

REWIND & PLAY (Alain Gomis, 2022)

DANS LA NUIT -Gauean/En la noche- (Charles Vanel, 1929)

THREE AGES -Hiru garaiak/Las tres edades- (Buster Keaton, Edward F. Cline, 1923)

GAS-OIL -Gasolia- (Gilles Grangier, 1955)

MADAME CURIE (Mervyn LeRoy, 1943)

FIRE OF LOVE (Sara Dosa, 2022)

JAWS -Marrazoa- (Steven Spielberg, 1975)

ZINEMALDIA: ZINEMIRA

Filmak / Películas:

20.000 especies de abejas

Estibaliz Urresola

Mirande, film bat egiteko zirriborroa (Mirande)

Josu Martinez

Bidasoa 2018-2023

Fermin Muguruza

Bizkarsoro

Josu Martinez

Irati

Paul Urkijo Alijo

Las buenas compañías

Silvia Munt

Misión a marte

Amat Vallmajor del Pozo

Tetuán

Iratxe Fresneda

Una vida no tan simple

Félix Viscarret

Deadly Draw

Nitya López

El aprendiz

Raúl Campos

El rey de la semana

David Pérez Sañudo

La mujer ilustrada

Isabel Herguera

Prioridades

Tamara Lucarini

Sorbeltza

Iban del Campo

Ximinoa

Itziar Leemans

Argitalpenak

Publicaciones

EUSKAL EMAKUME ZINEMAGILEAK

Euskadiko Filmetegiak *Euskal emakume zinemagileak* aurkeztu du, gure zinemagintzan funtsezkoak izan diren emakumeei buruzko hainbat saiakera biltzen dituen lehen liburua Deustuko Unibertsitateko María Pilar Rodríguez irakasleak koordinatu du obra eta emakumezko zinemagileek zuzendutako obrak oinarritzat hartuta euskal zinemaren berri ematea da haren helburua. Era berean, proiektu artistiko horien esplorazio akademiko eta dibulgatzaile bat eskaintzen du.

LIBRO CINEASTAS VASCAS

La Filmoteca Vasca publicó en euskera y castellano en febrero de 2023 *Cineastas vascas*, el primer libro que agrupa varios ensayos sobre mujeres fundamentales de nuestra cinematografía. El trabajo fue coordinado por la profesora de la Universidad de Deusto María Pilar Rodríguez y tiene como objetivo dar cuenta del cine vasco a partir de obras realizadas por mujeres directoras en diversos géneros y formatos. A su vez, lleva a cabo una exploración académica y divulgativa de estos proyectos artísticos.



Argitalpenak lau zati nagusi ditu: *Ikuspegi globalak, Generoak, formatuak eta moldaketak, Ekoizpena, banaketa eta harrera eta Hiru emakume zinemagile*. Lehenengoak (*Ikuspegi globalak*), euskal emakume zuzendarien film-ekoizpena lantzen du hainbat ikuspegitatik: gaiak, generoaren errepresentazioa eta haien filmen dibertsitate estetikoak eta formala. Bigarrenak, (*Generoak, formatuak eta moldaketak*), euskal emakume dokumentalgileen begirada aztertzen du eta, halaber, Kimuak programak egindako lana; horrez gainera, nazioz gaidiko ekoizpenak eta literatura-obren egokitzapen zinematografikoak ere esploratzen ditu. Hirugarrenean (*Ekoizpena, banaketa eta harrera*), elkarte eta zinemaldi batzuek emakumeek egindako zinema bultzatzeko eta hari ikusgarritasuna emateko egindako ahaleginak biltzen dira, bai eta haien harrera kritikoa eta akademikoaren aurrerabidea ere; eta laugarrenak, berriz (*Hiru emakume zinemagile*), euskal zinemako hiru figura nabarmen ditu ardatz: Ana Díez, Helena Taberna eta Yannick Bellon, Euskadiko Filmategian zeinek bere zikloa eta argitalpena izan zuten hiru egile.

Egile espezializatu hauek parte hartu dute atal bakoitzean: Carlos Roldán Larreta, Casilda de Miguel, Iratxe Fresneda, María Marcos Ramos, Nekane E. Zubiaur, Ainhoa Fernández de Arroyabe, Iñaki Lazkano, Cristina Ortiz Ceberio, María Pilar Rodríguez, María José Olaziregi Alustiza, Javier Sánchez Zapatero, Izaskun Arandia Galarraga, Ana Gutiérrez, Elena San Julián, Pilar Martínez-Vasseur, Annabel Martín eta Luisa Etxenike.

POLARARI BURUZKO LIBURUA (NOSFERATU BILDUMA)

-*El polar francés 1931-1982*, Nosferatu bildumakoa, 2023aren hasieran argitaratu zen gaztelaniaz. Donostia Kulturak eta Euskadiko Filmategiak editatu zuten liburua (saileko 19.a) eta Antonio José Navarrok koordinatu zuen.

-2023aren amaieran, Euskadiko Filmategiak eta Donostia Kulturak beren argitalpen berria aurkeztu zuten, **Polar frantziarra** euskarazko liburu kolektiboa, Iñigo Marzabalek koordinatua (Nosferatu Bildumako XI.a).

La publicación está dividida en cuatro partes principales: *Perspectivas globales, Géneros formatos y adaptaciones, Producción, distribución y recepción y Tres cineastas*. En la primera, *Perspectivas globales*, se aborda la producción fílmica de las directoras vascas desde perspectivas como los temas, la representación de género o la diversidad estética y formal de sus películas. En la segunda, *Géneros, formatos y adaptaciones*, se analizan la mirada de las documentalistas vascas, y la labor desarrollada por el programa Kimuak, al tiempo que se exploran las producciones transnacionales y las adaptaciones cinematográficas de obras literarias. La tercera, *Producción, distribución y recepción*, recoge los esfuerzos de asociaciones y festivales para impulsar y dar visibilidad al cine realizado por mujeres, y el progreso de su recepción crítica y académica; y la cuarta, *Tres cineastas*, se centra en tres figuras destacadas del cine vasco: Ana Díez, Helena Taberna y Yannick Bellon, tres autoras que tuvieron sus respectivos ciclos y publicaciones en la Filmoteca Vasca.

En cada uno de los apartados han participado las siguientes autoras y autores especializados: Carlos Roldán Larreta, Casilda de Miguel, Iratxe Fresneda, María Marcos Ramos, Nekane E. Zubiaur, Ainhoa Fernández de Arroyabe, Iñaki Lazkano, Cristina Ortiz Ceberio, María Pilar Rodríguez, María José Olaziregi Alustiza, Javier Sánchez Zapatero, Izaskun Arandia Galarraga, Ana Gutiérrez, Elena San Julián, Pilar Martínez-Vasseur, Annabel Martín y Luisa Etxenike.

LIBRO SOBRE EL POLAR (COLECCIÓN NOSFERATU)

-El libro *El polar francés 1931-1982*, publicación de la Colección Nosferatu, vio la luz en castellano a principios de 2023. El libro, número 19 de la serie, fue editado por Donostia Kultura y la Filmoteca Vasca y fue coordinado por Antonio José Navarro.

-A finales de 2023 Filmoteca Vasca y Donostia Kultura presentaron su nueva publicación, el libro colectivo en euskera **Polar frantziarra**, coordinado por Iñigo Marzabal, número XI de la Nosferatu Bilduma.

ZINE: IKERKETA ZINEMATOGRAFIKORAKO KOADERNOAK

-ZINE 04: *ZINE: ikerketa zinematografikorako koadernoak* aldizkariaren laugarren alean **Harun Farocki**ren metodologia didaktikoa eta praktika zinematografikoan duen aplikazioa landu ziren, eta, osagarri gisa, Deutsche Film- und Fernsehakademie Berlin (DFFB) akademiaren artxiboko zenbait dokumentu argitaragabe jaso ziren; zinemaren teoriari eta historiari buruzko ikastaroak eman zituen akademia horretan. Beste bi proiektu pedagogiko ere jaso dira argitalpenean: bi propaganda-filmen inguruko esperimendu hezitzaile bat Londresen eta Boliviako meatzarien zinema komunitarioko lantegi bat.

ZINE Elías Querejeta Zine Eskolak (EQZE), Donostia Zinemaldiak eta Euskadiko Filmategiak editatutako argitalpen akademiko bat da. *ZINE*ren helburua ikerketa originalak argitaratzea da, ikasketa zinematografikoen arloan espezializatutako eza-gutzari ekarpena egiteko edozein diziplinatatik.

HIROSHI TESHIGAHARA

-Hiroshi Teshigahara: Donostia Zinemaldiko 71. edizioko atzerabegirakoan, Hiroshi Teshigahara zinemagile japoniarrak 1953 eta 1992 bitartean zuzendu zituen hogeitau titulu —film luzeak, ertainak eta laburrak— erakutsi ziren. Zikloa osatzeko, **Inuhiko Yomota**ren *Crónicas de vanguardia*. *Conversaciones con Hiroshi Teshigahara* liburua argitaratu zen, Daniel Aguilarrek itzulia japonieratik. Liburua Euskadiko Filmategiarekin elkarlanean editatu da.


ZINE: CUADERNOS DE INVESTIGACIÓN CINEMATográfica

-ZINE 04: el cuarto número de la revista *ZINE: cuadernos de investigación cinematográfica* trató sobre la metodología didáctica de **Harun Farocki** y su aplicación en la práctica cinematográfica, y se complementó con documentos inéditos del archivo de la Deutsche Film und Fernsehakademie Berlin (DFFB), donde impartió cursos sobre teoría e historia del cine. La publicación también se centró en otros dos proyectos pedagógicos: la reconstrucción de un experimento educativo en torno a dos películas propagandísticas en Londres y un taller de cine comunitario minero en Bolivia.

ZINE es una publicación académica editada por la Elías Querejeta Zine Eskola (EQZE), el Festival de San Sebastián y la Filmoteca Vasca. El propósito de *ZINE* es publicar investigaciones originales que contribuyan al conocimiento especializado en el campo de los estudios cinematográficos desde cualquier aproximación disciplinar.

HIROSHI TESHIGAHARA

-Hiroshi Teshigahara: la retrospectiva de la 71ª edición del Festival de San Sebastián mostró 20 títulos —largometrajes, medimetrajes y cortometrajes— que el cineasta japonés Hiroshi Teshigahara dirigió entre 1953 y 1992. El ciclo tuvo como complemento la publicación del libro de **Inuhiko Yomota** *Crónicas de vanguardia*. *Conversaciones con Hiroshi Teshigahara*, traducido del japonés por Daniel Aguilar. El volumen está editado en colaboración con la Filmoteca Vasca.



Irakaskuntza- lanak EQZE-n eta ikasleen praktikak

Docencia en la EQZE y prácticas de estudiantes

Joxean Fernández Euskadiko Filategiko zuzendariak *Euskal zinemaren historia eta estetika* irakasgaia ematen du —nahitaezkoa ikastegiko plan akademikoaren barruan—. Bestalde, Silvia Casagrandek (Artxibategiko saila) *Ikus-entzunezko fitxategien bildumen kudeaketa* ikasgaia ematen du.

Elías Querejeta Zine Eskolaren laugarren promozioko artxibo-adarreko ikasleek ere egin zituzten praktikak Euskadiko Filategian. Ikastegiko bost ikaslek 100 orduko praktikak egin zituzten 2022ko azaroan eta 2023ko urtarrilean. Lan hauek egin zituzten zehazki:

La asignatura *Historias y estéticas del cine vasco* es impartida por el director de la Filmoteca Vasca, Joxean Fernández, y es troncal dentro del plan académico de la Escuela. Por su parte, Silvia Casagrande, del departamento de Archivo, imparte la asignatura *Gestión de colecciones de archivos audiovisuales*.

Las/los estudiantes de la rama de Archivo de la cuarta promoción de la Elías Querejeta Zine Eskola también pudieron realizar sus prácticas en la Filmoteca Vasca. Cinco alumnas de la escuela realizaron 100 horas de prácticas durante los meses de noviembre de 2022 y enero de 2023. Las labores que realizaron fueron:

Dokumentazio Saileko kartelen inbentarioa egin.

Realización de un inventario de carteles en el departamento de documentación.

Artxibategi Saileko VHS zinten inbentarioa egin.

Realización de un inventario de cintas VHS para el departamento de archivo.

35 mm-ko kopia zinematografikoen erreparosoa egitea, eta bakoitzaren erreparos-orriak betetzea, gero katalogatu ahal izateko.

Repaso de copias cinematográficas en 35mm y cumplimentación de sus respectivas hojas de repaso para su catalogación.

Kopia zinematografiko digitalen erreparosoa egin eta bakoitzaren erreparos-orriak bete, gero katalogatu ahal izateko.

Repaso de copias cinematográficas digitales y cumplimentación de sus respectivas hojas de repaso para su catalogación.

Film komertzialak digitalizatzea 35 mm-ko eta 16 mm-ko telezinean, Euskadiko Filmategiko teknikari batek zuzenduta.

Digitalización de películas comerciales en el telecine de 35 y 16mm con la supervisión de un técnico de la Filmoteca.

8 mm-ko, Super8 mm-ko eta 9,5 mm-ko filmak digitalizatzea, Euskadiko Filmategiko teknikari batek zuzenduta.

Digitalización de películas de 8mm, súper 8mm y 9,5mm con la supervisión de un técnico de la Filmoteca.

Komisariotza ardatzeko ikasle batek Programazio sailean egin zituen praktikak (200 ordu).

Una estudiante del eje Comisariado realizó sus prácticas en el departamento de Programación (200 horas).



Filmategira

egindako bisitak

Visitas a la Filmoteca

Ikasle- eta irakasle-taldeek eta elkarteek Euskadiko Filmatagiko instalazioak bisitatzeko aukera dute. Filmategiaren historiaren eta gaur arte izan duen ibilbidearen berri ematen zaie eta zer motatako gordailuak ditugun, filmak nola digitalizatzen diren eta teknikariek egiten dituzten lanak azaltzen zaizkie. Ondoren, bisita bat egiten da artxibategira, eta, han, bisitariak bertatik bertara ikus ditzakete Filmategiaren volt klimatizatueta gordetako mila filmak, proiektore eta kamera zaharrak, eta erreserba-funtsean gordetako liburutegiko funts delikatuak. Amaitzeko, bisitariak euskal zinematografiako film erakusgarrienez osaturiko sorta bat ikusten dute.

Grupos de alumnos, profesores o asociaciones tienen la posibilidad de visitar las instalaciones de la Filmoteca Vasca. Durante esas visitas se explica la historia y la trayectoria que ha tenido la Filmoteca hasta hoy en día, qué tipo de depósitos conservamos, cómo se digitalizan las películas y la labor que realiza el personal técnico. Posteriormente, se realiza una visita al archivo donde los visitantes pueden ver los miles de películas conservadas en nuestros voltios climatizados, los proyectores y cámaras antiguas y los fondos más delicados de la biblioteca que se conservan en el fondo de reserva. Para finalizar, los visitantes ven una selección de películas representativas de la cinematografía vasca.

2023an, talde hauek bisitatu zuten Euskadiko Filmatagia:

CTL (otsailaren 8a).

EUN enpresa (martxoaren 4a).

IRALE (martxoaren 15a).

IRALE (azaroaren 7a).

IRALE (abenduaren 15a).

Estas son los grupos que visitaron la Filmoteca Vasca en 2023:

CTL (8 de febrero).

Empresa EUN (4 de marzo).

IRALE (15 de marzo).

IRALE (7 de noviembre).

IRALE (15 de diciembre).



Beste jarduera batzuk

Otras actividades

RENCONTRES NATIONALES

Euskadiko Filategiak Frantziako zinemaren eta hezkuntzaren sektoreari lotutako 200 profesional baino gehiago hartu zituen azaroaren 15ean. *Rencontres nationales* jardunaldia L'Archipel des Lucioles elkarteak antolatzen du (Laurent Cantet zinemagilea da lehendakaria) eta Frantziako Kultura eta Hezkuntza ministerioen, CNCren (Zinemaren eta Irudi Animatuaren Zentro Nazionala) eta ANCTren (Lurraldean Kohesioaren Agentzia Nazionala) laguntza jasotzen du. Hezkuntzaren eta zinemaren inguruko programen eskola-koordinatzaileek, eskualde-arduradunek, banatzaileek eta emanaldi zinematografikoen alorreko profesionalak zenbait mahai-ingurutan parte hartu zuten Tabakalera. Halaber, Isabel Herguera zuzendari donostiarrak bisita gidatua egin zien *El sueño de la sultana* erakusketan eta ondoren bere filma aurkeztu zien (Irizar saria irabazi zuen Zinemaldi-azken edizioan).

Aurreko egunean (azaroak 14) gonbidatu guztiek (200 baino gehiago) Donibane Lohitzuneko Le Sélect zinema-aretoetan *20.000 especies de abejas* filma ikusteko aukera izan zuten, Estíbaliz Urresola zuzendariak berak aurkeztua.

La FilMOTECA Vasca recibió el 15 de noviembre a más de 200 profesionales del sector del cine y de la educación de Francia. Las jornadas denominadas *Rencontres nationales*, están organizadas por la Asociación L'Archipel des Lucioles, presidida por el cineasta Laurent Cantet y apoyada por los Ministerios de Cultura y de Educación franceses, así como por el CNC (Centro Nacional del Cine y de la Imagen Animada) y la ANCT (Agencia Nacional de la Cohesión de Territorios). Coordinadoras y coordinadores escolares de programas de educación y cine, responsables regionales, y profesionales de la distribución y la exhibición cinematográfica participaron en varias mesas redondas que tuvieron lugar en el cine de Tabakalera. Asimismo, Isabel Herguera realizó una visita guiada a la exposición *El sueño de la sultana* y posteriormente la cineasta donostiarra les presentó su película, ganadora del Premio Irizar en la última edición del Zinemaldia.

El día anterior (14 de noviembre) las más de 200 personalidades invitadas tuvieron ocasión de ver *20.000 especies de abejas* en los cines Le Sélect de San Juan de Luz, trabajo que les presentó la propia autora, Estíbaliz Urresola.





TXIRRINDULARITZA

Euskadiko Filategiak artxibategian daukan txirrindularitzari buruzko material guztia eskaini zuen 2023an. Frantziako Tourra Euskaditik igaro zela aprobetxatuta, Euskadiko Filategiak zinemaren eta txirrindularitzaren zaleak omendu zituen, eta, horretarako, bere artxibategian txirrindularitzari buruz dauzkan 92 filmak bildu eta bere webgunean jarri zituen guztien eskura..

Filategiaren atariko *Funtsak* atalean kontsultatu daitezke *Txirrindularitza* bilduma osatzen duten 90 film amateurak, partikularrek filmatuak eta Euskadiko Filategian digitalizatu, dokumentatu eta katalogatuak. Joan den mendeko 20ko eta 80ko hamarkaden bitartean egindako filmazioak dira, eta amateurren lasterketak, Frantziako Tourreko etapak eta Euskadiko Sei Orduak erakusten dituzte, besteak beste.

La Filmoteca Vasca ofreció en 2023 todo el material sobre ciclismo que conserva en su archivo. Coincidiendo con el paso del Tour de Francia por Euskadi, la institución homenajeó a los amantes del cine y del ciclismo y recopiló las 92 películas sobre este deporte que conserva en su archivo y las compartió en su página web.

En el apartado *Fondos* del portal se pueden consultar las más de 90 películas amateur que conforman la colección *Txirrindularitza* filmadas por particulares y que han sido digitalizadas, documentadas y catalogadas en la Filmoteca Vasca. Se trata de filmaciones realizadas entre los años 20 y los 80 del pasado siglo, y donde se pueden ver desde carreras de aficionados hasta etapas del Tour de Francia, pasando por las *Seis horas de Euskadi*.



YANNICK BELLON VIGON / EN VIGO

Vigoko Arte Garaikidearen Museoak (MARCO) ziklo bat eskaini zion Yannick Bellon euskal zinemagileari, Euskadiko Filmategiarekin lankidetzan. Beraz, Euskadiko Filmategiak 2019an haren lanaren inguruan antolatu zituen atzerabegirakoak eta monografiak oihartzuna izan zuten Galiziako lurretan.

El Museo de Arte Contemporánea de Vigo (MARCO) dedicó un ciclo a la cineasta vasca Yannick Bellon, en colaboración con la Filmoteca Vasca, en abril de 2023. La retrospectiva y la monografía que la Filmoteca Vasca dedicó a la cineasta de Biarritz en 2019 tuvo pues su eco en tierras gallegas.



EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOA
FUNDACIÓN FILMOTECA VASCA

Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza 1, 2. solairua / 20012 Donostia
Tabakalera / Plaza de las Cigarreras 1, 2ª planta / 20012 Donostia / San Sebastián

e-mail: filmoteka@filmoteka.eus / www.filmoteka.eus

Tel. +34 943 468 484 Fax +34 943 469 998

Euskadiko Filmategia Fundazioaren Patronatua ondorengo erakundeek osatzen dute:
El Patronato de la Fundación Filmoteca Vasca está compuesto por las siguientes instituciones:



Euskadiko Filmategia Fundazioa ondorengo erakundeak finantzatzen du:
La Fundación Filmoteca Vasca está financiada por:

